

Nafar hizkuntza

ZEHATZ-MEHATZ

DANTZA TALDEAK. Argia (Donostia), Haritz (Elgoibar), Kezka (Eibar), Duguna (Iruñea), Gure Kai (Deba), Maritzuli (Miarritze), Xinkako (Bidarte) eta Arkaitz (Añorga).

EGITARUAU

Ikuskizuna hiru ataletan banatzen da:

Besta Berri Sarrera

Herensugea, Ezpata Dantza, Heletakoen sarrera, Lapurdiko makil dantza, Muxikoa.

Oteizaren Apostoluen Soka Dantza

Oñatiko Dantzak, Seien Bourrea, Apostoluen Soka Dantza

Muriska

Muriska, Azken agurra



Muriska izeneko atala, Zuberoako pastoralean oinarrituta.

BESTA BERRI



tailerrak

SORMEN TAILERRAK EUSKARAZ

ZURE TXIRRINDULA KONPONDU

Otsailaren 17an hasiko da. 5 saio. 10 ordu
Irakaslea: Aitor Txarterina
Civivox Juslarocha zentroa. Astelehenetan, 19:00etatik 21:00etara

BALKOIKO ZURE BARATZA

Martxoaren 6an hasiko da. 5 saio. 10 ordu
Irakaslea: Xatur Larralde (Adaxka)
Gaztediaren Etxea eta Adaxka lorezaintza. Ostegunetan, 20:00etatik 22:00etara

GOZOGINTZA

Otsailaren 25ean hasiko da. 8 saio. 18 ordu
Irakaslea: Maite Perez
Gaztediaren Etxea. Astearteetan, 19:30etik 21:45era

TXALAPARTA

Otsailaren 27an hasiko da. 12 saio. 24 ordu
Irakaslea: Hutsun Txalaparta Taldea
Amaiur Ikastola IP. Ostegunetan, 19:30etik 21:30era

ORIENTAZIOA MENDIAN: GPSREN ERABILERA ETA MAPEN IRAKURKETA

Martxoaren 3an hasiko da. 6 saio. 20 ordu
Irakaslea: Mikel Valdivieso
Gaztediaren Etxea. Astelehenetan, 19:00etatik 21:00etara

IRUÑA PATINETAN, IRRISTAKETA IKASTAROA

Martxoaren 13an hasiko da. 10 saio. 20 ordu
Irakaslea: Jon Ibero
Amaiur Ikastola IP. Ostegunetan, 18:30etik 20:30era

TESTUGINTZARAKO BALIABIDEAK: PUNTUAZIOA JOSKERAREN LAGUNGARRI

Otsailaren 18an hasiko da
6 saio, 12 ordu
Irakaslea: Fernando Rey eta Ander Irizar
Euskaldunon Biltokia Elkarte (Ezkaba plaza). Astearteetan, 19:00etatik 21:00etara

IZEN EMATEA:

Otsailaren 3tik 8ra. 010 telefonora deituta (edo 948 420 100era, sakelakotik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero)

Informazio gehiagorako:
670 489 511

sormentailerrak@global-sc.net; www.pamplona.es

Suscríbete al boletín electrónico cultural en la web municipal

Más información: teléfono 010 • www.pamplona.es

Ehun dantzariren eskutik, 'Besta Berri' ospakizunaren harira sortutako dantza tradizionalak berreskuratuko dituzte datorren larunbatean, Juan Antonio Urbeltz folkloristak zuzendutako ikuskizunear

Aintzinako dantzen berpizkundea



Dugunako dantzariak, Ezpata Dantza eskaintzen.

DUGUNA

NEREA ALEJOS

Iruñea

DUELA berrogeitamar urte, Juan Antonio Urbeltz antropologoa eta bere emaztea, Marian Arregui, herriz herri ibiltzen ziren euskal dantza tradizionalak berreskuratzen. Bildutako ondare guzti horrekin, 1987tik aurrera ikuskizunak sortzen hasi ziren Argia Taldearen eskutik, gehienetan aintzinako dantza horiek berrasmatur.

Iruñean *Axeri Boda* edo *Axuri Beltza* izeneko proiektuak taularatu dituzte, —biak Gaiarre Antzokian—, eta oraingo honetan Baluartera emango dute jauzia *Besta Berri* ikuskizunarekin, ohi den bezala Urbeltzen zuzendaritzapean. Arriaga Antzokian estreinatu zenetik, 2012ko azaroan, bere zazpigarren parada izango du Iruñean (aurretik Gasteizen, Donostian, Bilbon, Andoainan,

Eibarren eta Zornotzan eskaini zen). Guztira 100 bat dantzari egongo dira eszenatokiaren gainean; haien artean, Iruñeko Duguna Taldeko 22 dantzari, lau edo bost musikariek lagunduta. "Argia Taldearekin urte dexte daramatzagu elkarlanean, 2007 urtetik hain zuzen", esaten du Duguna taldeko Aritz Ibañezek. Beraiekin batera egindako lehen ikuskizuna *Axeri Boda* (2008) izan zen.

Oraingo honetan, berreskuratutako dantzak Besta Berri edo Corpus Christi ospakizunear oinarritzen dira. Taularatuko diren dantzen artean, gaur egun bizirik diraute, Oñatiko Korpus Dantza eta Heletako Kabalkada. Besteetan koreografiak 'berregin' behar izan dira. "Gerraren garaian, toki askotan tradizioak moztu ziren eta gero ez ziren berreskuratu, edo berreskurapen hori oso modu folklorikoan egingen zen, sustraietara joan gabe",

azaltzen du Aritz Ibañezek. Dugunako dantzariak *Ezpata Dantza* eskainiko dute, Arrateko Kezka taldearekin batera, beste 21 dantzariekin osatuta. "Iruñea eta Arrateko ezpata-dantzen sinbiosia egingo dugu. Biak XXI. mendean sortutakoak dira, lehenagotik heldu zaigun ondare horretan oinarriturik, kate baten hurrengo kate-begian modura", azaltzen du Ibañezek.

Hain zuzen, bost urte pasa dira Duguna Taldeak San Fermin Aldapako *Ezpata Dantza* berpiztu zuenetik. "Iruñean XVI. mendetik dokumentatuta zegoen. Batzutan ezpata txikiak egingen omen zen, eta beste kasuetan ezpata luzeekin. Datu horietatik abiatuz, gure sorkuntza egin genuen, baina ez bakarrik gure inguruan oinarritutakoa, baizik ere Europa mailan. Dantza mota honetan, amankomuneko ezaugarriak aurkitu genituen beste herrialdeetan", ziurtatzen du.

Apostoluen sokadantza

Besta Berriren harira, hainbat bitxitasun ikusiko dira ikuskizunear, adibidez Jorge Oteizaren jaiotzaren urteurrenarekin sortutako *Apostoluen sokadantza*, Arantzazuko elizaren aurrean taularatu zena. Apostoluak Oñatiko Korpusen ere ateratzen dira, dantzariekin eta San Migel 'gerlariarekin' batera.

Ikuskizuneko azken zatian, *Muriska* izeneko, Iparraldeko pastoral baten "interpretazio dantzatua" egingo da. Zuberoako antzerki mota honetan ohi den bezala, ongia gaizkiaren kontrako 'guda' sinbolikoa kontatuko da.

■ **Besta Berri.** Otsailak 1, Baluartean. 20:00etan. Sarrerak: 14 eta 18 €.